


LEZOTARRAK GERRAURREAN

Laister, hala espero dugu, Patri Urkizu eta Patxi Intxaurrendietak prestaturik lezotarrok esku artean edukiko dugu, honela bataiatu duten bostehunen bat orrialdetako liburu lodikotea: «GARBIZUTARRAK: -ZUBIGAR-, -IRUZUBI-, -TEGE-, OLERKARIEN IDAZLANAK» (1921-1936).

Bertan irakurri ahal izango dugu Jon Garbizu Salaberria «Zubigar» (1893-1930) olerkariaren lanak, Lezoko hiztegitxo bat barne delarik; Daniel Garbizu Salaberria «Iruzubi» (1895-1986)-en olerkiak, ipuinak eta Lezoko kronikak; eta Tomasen olerkiak, ipuinak, gazetari idazlanak (politikaz, antzertiaz, musikaz, euskaraz...), xapladak eta izkirimiriak. Orotara ehun eta berrogeitahamar olerkitik gora eta hirurogeitahamar artikuluko bederen.

Gerraurreko une hura bizitzeko zoria izan zutenek egokiera izango dute irakurketa honen bitartez hainbat eta hainbat gauza berritzeko eta oroitarazteko. Gazteek, era berean, gure historiaren garairik interesgarrienetakoaz, alegia, Pizkunde Aroz, jabetzeko aukera. Zaharrek izango dute bertan zer oroitu eta zer dasta, gaztek, berriz, zer ikasirik.

Halere, hemen ondoren emango ditugun hiru adierazpenok ez dira liburukoak, liburua prestatzen ari ginela, «EL DIA» gerraurrean Donostian kaleratzen zen egunkaritik hartutakoak baizik. Bada egunkari honetan kronika aski interesgarririk Lezoko gerraurreko historian sakontzeko. Ea nor animatzen den.



GURE-TXOKUA

Erri ontan badegu
Eusko batzokiya
ez da aundiya baña
bai txit egokiya.
Gastiak jostatuz,
zarren pozgarriya:
antxe bertan daukagu
gure antzokiya.
Emen festa politak
egiten dituzte:
ilunabar eder bat
pasako dezute.
Ez degu berexitzen
ez bat eta beste,
nai dezuten guztiyak
etorri zaitezte.
Argitatu zituzten
patxara ederrian,
ederki, txit ederki,
ilunabarrian
«Aitona ta biloba»
lengo igandian
eta «Ametz gozuak»
arren ondorian.
Aurrenetik sotinka,
ondoren algaraz,
igaro genituen
ordu bi txit erraz.
Jarraitu beti orla,
al dezuten eraz,
erakusteko danai
izketan euskeraz.

AZKATASUNA

Guda galgari baten ondoren
laister dirala eun urte,
maltzurkeri bat nola Bergara'n
jaso zan askok diyote.
¡Gure aberri maitearentzat
geroztik oinbeste kalte
Zenbait agintari berekoin mende
bizi izan gera gaur arte,
ta orain berriz kristautasuna
arras kendu nai digute.
Agintariyan aldaketa onek
asko aginduagatik,
gorrotoz nola erantzun zaigun
ikusi degu Madri'tik.
Lege bidezko zuzentasuna
zail dago ezker aldetik;
baño oraindik itxaropena
naiz zerbait ilundu ortik,
ez degu etsi ta aurrera guaz
eragozpenan gañetik.
Azkatasuna iritxi zala
esan ziguten deadarrez,
beren gogoko etzan guztiya
purrukatuaz indarrez.
Zenbait beltzkeri ikusi dira!
danak esaten ezda ertz;
Ebros onuntza badatoz ere
dana ere ta autstuez,
negarrik aski letorke baño
gure Aberriya galdu. Ez!!!
Lezo.

TIÑALU

«EL DIA», datarik gabe.

EUSKAL IRRATSAIOAK

Saio polita antolatu digute gaur
ilunabarrerako lezoar ertilariak.

Garbizu'tar Tomax ereslari ta iz-
lari jatorra eratzale izanik ala gerta
bear.

Berak egingo du gaurko itzaldi-
txoa. Ta bai pianoan ber-berak ida-
tzitako «Biribilketa» bat, ta Lizarra'n
orain berpiztu duten «Baile de la
era» izenez ezagututako dantza be-
rezia jo ere.

«Zubigar» adiskide ona (G. b.) za-
naren olerki bi entzungo ditugu,
aren bi semetxoak, Imanol eta Jon
mutikotxoak esanda.

Bi andereño ditugu abeslari, Iña-
rra'tar Tomaxe ta Elistondo'tar Kan-

dide. «Nere maite polita» arek, eta
onek «Goiko mendian» abestuko diz-
kigute.

Reparaz, abeslari jatorra ere ba-
datorkigu «Aritzari» abestera.

Ta «Aritz ederrean», «Neure se-
nar» ta «Petra txardin-saltzalia»
abestuko omen dizkigu berriz Gar-
bizu'tar Liborio, abosperen ospetsu
ta apaiz jaun gazte agurgarriak.

Azkenik txistulariak ere izango di-
tugu: Gezala anaiak, iru txuloak
noiz itxi ta noiz iriki ta mingaña ta
ezpañak nola jarri badakitenak nos-
ki, ez al da ala?

Ta iñork geiago nai badu...

«EL DIA», 1933, Abuztuak 30.

PATRI URKIZU

Nortzu ote ditugu Mariaren alaba eta TIÑELU olerkari ezezagunok?
Zein izen eta abizen gordetzen dira izengoiti hauetan? Benetan interesga-
rria litzateke norbaitek baldin badaki adieraz diezagun, horrela Lezoko
idazleen zerrenda osoago bat burutzen joan gaitezten.

PATRI URKIZU